

Algebra Trukakorra. 1. gaia. Galdetegia

Gustavo Fernández, Luis Martínez

Matematika Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

1. Eratzun batean, zeroren zatitzaileen batura zeroren zatitzailea da.
 - (a) Egia
 - (b) Gezurra
2. $\mathbb{Z}/30\mathbb{Z}$ eratzuna integritate-domeinua da.
 - (a) Egia
 - (b) Gezurra
3. Eratzun batean, zeroren zatitzaile bat unitatea izan daiteke.
 - (a) Beti
 - (b) Batzuetan
 - (c) Inoiz ez
4. Baldin eta n zenbaki arrunta bada, badago n karakteristikako eratzun bat.
 - (a) Egia
 - (b) Gezurra
5. Badago 4 karakteristikako integritate-domeinu bat.
 - (a) Egia
 - (b) Gezurra
6. Zenbat elementu nilpotente daude $\mathbb{Z}/25\mathbb{Z}$ eratzunean?
 - (a) Bat ere ez
 - (b) Bat
 - (c) Bost
7. Demagun A eratzuna dela eta $f \in A[X]$ polinomioa unitatea dela. Orduan f konstantea da.
 - (a) Egia
 - (b) Gezurra

8. Demagun A integritate-domeinua dela eta $f \in A[X]$ polinomioa unitatea dela. Orduan f konstantea da.
- (a) Egia
 - (b) Gezurra
9. Izan bitez K gorputza eta A K -algebra finituki sortua. Orduan A dimentsio finitukoa da K -ren gaineko bektore-espazio gisa.
- (a) Beti
 - (b) Batzuetan
 - (c) Inoiz ez
10. Demagun A K -algebra elementu bakar baten bidez sor daitekeela. Orduan, A -ren azpialgebra guztiak ere elementu bakar baten bidez sor daitezke.
- (a) Egia
 - (b) Gezurra